




Nola jaulkitzen da ordezkari ziurtagiria softwarean?

Eskaera izapidetutakoan, email batean jasoko ditugu eman beharreko pausoak eta ziurtagiria jaulkitzeko fluxurako esteka.



Prozesuak errepikatuko digu jarraitu aurretik GCSC softwarea instalatu behar dugula, lehendik instalatuta ez badugu.



Eskaera-puntuan eman diguten edo, onlineko eskaera izanez gero, emailaz bidaliko diguten CUR (erregistro-kode bakarra) eskatuko digu jarraitu ahal izateko.



Egiaztatu eta datuak berretsiko ditugu; datu horiek izango dira ziurtagirian agertuko direnak.

Pauso honetan, instalatu dugun CGSC softwarea irekitzea onartu behar dugu.

Une honetan, beste leiho batean irekiko den aplikazio batean jaulkiko da ziurtagiria.



Instalatu dugun edukitzailea irekiko da eta 3 pauso izango dira:

1. Ziurtagiria sortzea
2. Gordetzea
3. Pasahitza jartzea

Garrantzitsua da pasahitza gogoratzea instalatzeko eta erabiltzeko!

Ziurtagiria prest dago esportatzeko eta erabiltzeko.

Gainera, software-edukitzailean gordeta geratuko da, behar duzun guztietan deskargatu ahal izateko.

